

# ORAIN BERROGEITA AMAR URTE

---

**Bixente BARANDIARAN**

Garbera etorri nitzala. Orduan nola zan Garbera Bidea. Trenean edo kotxean etorrita Txingurriarte ondo. Bar Ramuntxo ezkerretik. Andik asten ziran arbostoak bi aldetatik. Goiko aldetik, urak korritzeko, zanga bat. Perueneko soroa goiko aldetik. Erdi parean bazan agortzen etzan iturria, uda eta negu. Andik gora arbosto eta sasia Larraundiko terrenorarte. Azpiko aldetik Txingurriñeko ganaduak larrean. Kanpo futbolera zijoan bidez gaiñetik, Gregorio "Napar Txikia", deitzen genion. Aren beiak larrean urte guzian ateri bazan. An etzan larrik ere sortzen !.

Andik aurrera Larratxora artean, Larraundiko baserria goiko aldetik. Sagasti ederra beko bideraiño. Bide azpitik erreka tartean sasia zepa guzien gaiñeraiño. Goiko aldetik berdin. Eskerrek ez giñala gauen gauerdia askotan ibiltzen!. Bildurra ematen zuan gauetz pasatzea. Tunela ematen zuanda. Larratxo biztatu ezkerreko pena ematen zigun. Orrela urte askoan. Jaxinto Etxeburuak nai izaten zuan etxe bat egin Franzinko Altunaren zailetan. Bañan diru asko eskatzen zion eta etzan atrebitzen. Orrenbeste ordaintzea ni penaz egoten nitzan gauza orrekin merkego ematen etziolako. Bañan Larratxok etzeukan diru paltik. Lasai bizi zan ura!.

Beko aldetik egin zituzten gero etxe batzuk. Lenengo "Mi casita" dauka izena. Bestea "Errekalde". "Rosa Primi" aren ondoan. Errekan beste aldetik egin zuan "Rubio" esaten genion. Arek bai kostata egin zuala!. Bide gaiñean asi zan arria atera ta pareta egin. Ez det uste tirorik egin zuanik! Palanka eta pikatxoiak bere erramientak eta pegoi emaztea izan zuala uste det. Ura zan lana egitea! Gu arrituta:" Ori bukatu baiño len erori egingo zaio", esaten genuan. Arek bazekian gu baiño obetogo zer egiten ari zan. Gaur ere an dago ura zutik Rubio zanak egin zua-na. Zeruan gerta dedila!

Orain aziko naiz gaur nola dagon Larratxo idazten. Len gutxigi eta gaur geiegi. Bein ere ez gustora! Kontatu dedan bezela ibili giñan mila bederatzireunda irurogeita bederatzira arte. Orduan asi ziran Garberako jendea astoratzen. Lenengo ekin zioten erreka puskatzen. Dena garbitu zuten lenengo ondo. Asi ziran aurrena egurrez arku bat egiten. Gero gaiñean masa bota aldiko amar bat metro errekaldeko etxe zubitik gora. Iritsi ziranean gu gebiltzen bidera, or utzi gaituzte pasorik gabe!. Otaño izenekoa ta beste lagun bat ziran buru egiten zutenak. Asi giñan pasoaren eske. Amabost eunekoa zala ta albotik pasatzeko esanez. Azkenean lege gizon edo abogadungana jun bear izan genduan. Arek beste bide bat jarri, bestela Lau Aizetatik bueltan zerbizioan berebil bat. Orduan erantzun ziguten etzekitela zeini esan. Nere suiak esan zien ondo ordaintzen bazuten berak egingo zuala. A ber zenbat bear zuan galdetu zioten. Eguneko

mila ta bosteun pezeta eskatu zien. Urrango egunetik asteko esan zioten. Jendea gustora zan Garberan. Berak etzuan lan ederra artu. Lenego zazpi terdian langilea jetxi. Gero emakumeak beren esne eta tratoarekin. Amabietan langileak gora. Ordubatean andreak. Ordubietan lanera. seirak arte libre. Oietan saiatzen zan bere lanean. Amabost eguneko lanak esan zioten eta urte terdi iraun zuan!.

Egin zuten erreka tunela ori. Gero atera zioten tximiniak gaiñeko urak artzeko. Asi ziran bi aldetatik mendiari kentzen. A ze plaza jarri zuten! Errekatik zazpi bat metro altxatuta, azpiko arkaitzetatik artu zituzten zimelduak. Ekin zioten etxeak egiten. Ura zan suertea izan zutena. Azaldu zituzten planoak nolako pisoak izango ziran. Eta denak eske. Bañan gordetzea nai bazenun ordaintzen asi bear zenduan. Sarrerako eun mila pezeta. Denbora seiñalatzen zioten beste eun mila noiz ordaindu. Etxea bukatu baiño len dena ordainduta. Ori da besten diruarekin etxea egitea!. Gero beste kontu bat sortu zuten: Etxeak egiteko materialak garestitu egin zirala eta deretxoa zutela lenago paperean jarri zuten baiño geiago ordaindu bear. Baziran len botatakoak jasota alde egin zutenak. Ajola gutxi aieri!. Naiko erostunak zeuzkatenda!. Alde batetik sei etxe amalau pisokoak. Beste aldetik bi. Bosteko eta seikoak iru guztira. Sei-reun bat bizilagun sortu ziran.

Danak gero dirua aurreratzen asi ziranean kotxea erosi nai!. Besteak baiño gutxiago ez nai!. Ura ekarrita nun utzi. Ortan ziran lanak!. Ibili ziran asarratuta. Iluntzero bidea itzita aparkamentu eske. Azkenean bastante leku jarri zioten. Isildu ziran beintat!. Gaur uste det Larratxon ondo bizi leikela, alkar maitatu bagendu. Ori gabe iñun ez!.

Beste pena bat daukat barrenean oroitzen naizen bakoitzean. Larratxo baserriaren ondoan iturri eder bat zegoan putzua lurraren nibelean. Askotan edan genduan bertatik. Etxeak egiten asi ziranean erreka sartu zuten iturri ori. Udalde batean goiko soroan agertu zan nundik zetorren. Larratxo bailara ori egin zanean bururatu bazan ur ori goiko soroan ondo artuta jarri izan bazan plazaren erdian zeinek juzgatu ze balio zeukan gaur, bertan edateko eta, batez ere, udara partean jendea ugari izango zan ontzia artuta eta ur bila jetxiko zana. Gau urak balio dunakin ze etrokizuna sartu zuten lurpean!. Pena ori nerekin eramango det!. Orra Larratxoko berriak jarri iñork irakurri nai badu.



Bertso batzuek negon  
jarri bearrean  
orduak pasatutzeko  
denbora txarrean  
osasunetik ez nabil  
oso indarrean  
ementxe gozatzen naiz  
suan bazarrean.

Lenago nai genduan  
guk ere zartzea  
tristetzeko naikoa da  
pentsatzen jartzea  
len ez genduen miña  
nun naitik sortzea  
guk nai gendukena da  
ondo gertatzea.

Aize otzan bildurrez  
gabilta neguan  
gaztetan errezago  
pasatzen genduan  
alperrik pensatzea da  
orduko moduan  
salda pixkat artuaz  
suaren onduan.

Pozgarriak dirut nik  
sukaldeko lanak  
gustora artzen dirade  
agertzen diranak  
lenago ere badauzkat  
orrela emanak  
al badet egingo ditut  
esandako danak.

Nola ez dedan gogorik  
ontan gelditzeko  
beti prest egoten naiz  
launak zerbitzeko  
gauza naizen artean  
ola ibiltzeko  
lana egin nai nuke  
nik autsak kentzeko.

Kultur etxe au beti  
daukat goguan  
lagundu nai nioke  
betiko moduan  
neri galdetu zidanean  
egingo al nuan  
beste lanak utzi nitun  
aguro albuan.

*Denon gogokoa dala  
nola dan ezagun  
beragatikan lanak  
guk egin ditzagun  
al dana lagun eitea  
ain merezia dun  
alegiña egin beintzat  
goratutzen degun.*

*Beragatik pensatzen  
beti emen nago  
ortarako badaukat  
orrenbeste gogo  
lantegi ontan al dana  
egin bearra dago  
al badet saiatuko naiz  
geroz ta geiago.*

## **Reseña**

*Este año en el que vamos a ver Garbera tan transformado, Bixente Barandiaran no quiere perder la ocasión de compartir con tod@s nosotr@s, con quienes lo conocieron y con quienes no, la imagen que, desde el proyector de su memoria, surge de un Garbera no tan lejano pero tan lleno de color y sabor.*